



EBAZPENA (Espt.: 4/08, BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO HIGIEZINEN JABETZAKO AGENTEAK)

Osoko bilkura

Javier Berasategi Torices, presidentea

Joseba Andoni Bikandi Arana, kidea

Juan Luis Crucelegui Garate, kidea

Gasteizen, 2008ko urriaren 28an.

Lehiaren Aldeko Euskal Auzitegiak (LAEA), goian adierazitako kideek osatuta, honako Ebazpen hau eman du Berasategi Torices jaun txostengileak proposatuta, Lehiaren Aldeko Euskal Zerbitzuak (LAEZ) ofizioz hasitako 4/08 espedienteari dagokiona. Bizkaiko Higiezin Jabetzako Agenteen Elkargoak (Bizkaiko HJAEO) eta Gipuzkoako Higiezin Jabetzako Agenteen Elkargoak (Gipuzkoako HJAEO) hurrenez hurren hartutako ogibidesarien baremoen eta Lehiaren Aldeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen (LAL) arteko bateragarritasunari buruzkoa da espediente hori ¹ (LAL).

AURREKARIAK

(1) 2008ko urtarrilaren 30ean, honako proposamen hau aurkeztu zen LAEAren Erregistroan: “Lehiaren Aldeko Euskal Zerbitzuaren proposamena, zigor-espedientea ez hasteari buruzkoa, baita Bizkaiko eta Gipuzkoako Higiezin Jabetzako Agenteen Elkargo Ofizialek gutxi gorabeherako ogibidesarien publizitatea egitearen inguruan ofizioz ikusitako jokabidearen gaineko lehia sustatzeko hainbat jarduketa egiteari buruzkoa ere (“gaia artxibatze proposamena”), betiere LAEZren 012/2007 espedienteari dagokionez.

(2) Gaia artxibatze eginiko proposamenean, 2007ko azaroan honako jokabide hauen berri izan duela adierazi du LAEZk:

“Bizkaiko Higiezin Jabetzako Agenteen Elkargo Ofizialaren web orriak, “Lanbidearen datuak” izeneko atalaren barruan, “ogibidesariak” izenburuko epigrafe bat dakar, eta “Higiezin jabetzako agenteen lanbide-jarduketan ziozko gutxi gorabeherako ogibidesarien arauak” deritzenen publizitatea egiten da.”

¹ Lehiaren Aldeko 15/2007 Legeak (LAL) indargabetu egin zuen Lehiaren Aldeko 16/1989 Legea. LAL berriak Lehiaren Batzorde Nazionala (LBN) ezarri du, Ikerketa Zuzendaritza eta Kontseilu bat biltzen dituen, eta organo horiek 16/1989 Legean ezarritako Lehiaren Aldeko Zerbitzuaren (LAZ) eta Lehiaren Aldeko Auzitegiaren (LAA) ordezkokoak dira. Ebazpen honetan, “LAL” sigla erabiliko da 15/2007 Legeaz aritzeko, eta 16/1989 Legea erabiliko da lege haren gainean hitz egiteko.



Gipuzkoako Higiezin Jabetzako Agenteen Elkargo Ofizialaren web orrian, “HJAEO informazioa” atalaren barruan, “Ogibidesariak” izeneko epigrafe bat dago eta bertan egiten da Bizkaiko Higiezin Jabetzako Agenteen Elkargo Ofizialeko Higiezin Jabetzako Agenteen lanbide-ogibidesarien mugasariak” deritzenei buruzko publizitatea”.

Bizkaiko HJAEOk gutxi gorabeherako ogibidesarien arauak

(3) Bizkaiko HJAEOk “Higiezin jabetzako agenteen lanbide-jarduketan ziozko gutxi gorabeherako ogibidesarien gaineko arauak”² 2002ko urtarrilaren 28tik hona daude indarrean.

(4) “Xedapen orokorra” atalean, lehen, bigarren eta laugarren xedapen orokorrak nabarmentzea komeni da:

Lehen xedapen orokorra

“Arau hauek orientazio gisa balio digute Bizkaiko Higiezin Jabetzako Agenteen Elkargo Ofizialekoak diren higiezin jabetzako agenteen jarduketa-eremuko lanbide-jardueretarako. Aipaturiko arau horiek orientazioa emateko besterik ez direnez gero, Higiezin Jabetzako agenteek minutatzeko askatasuna dute ondoren azalduko diren irizpideen gaineko haien haztapenaren arabera, betiere bidegabeko lehiarik ez badakarte”.

Bigarren xedapen orokorra

“Arau hauek, Bizkaiko Higiezin Jabetzako Agenteen Elkargo Ofizialeko Gobernu Batzak onetsi ondoren, indarrean sartuko dira elkargoaren barne-zirkularraren bidez argitaratzen diren egunaren biharamunetik aurrera, eta egun horretatik aurrera eginiko lanengatik luzatuko diren ogibidesarien munitei aplikatu beharko zaizkie; izan ere, lehenago eginiko lanak 1983. urteko urriaren 15eko arauekin bat etorri minutatuko dira.”

Laugarren xedapen orokorra

“Elkargoko Gobernu Batzari dagokio arau hauek aplikatzean eta interpretatzean planteatu daitezkeen zalantzak ebazteko ahalmena”.

(5) “Lege-kontzeptuak eta jarduteko arauak” atalean, hauxe ezarri da:

“Jabetzako agenteak emandako denbora bada ogibidesariak ezartzeko irizpidea (bakarra edo nagusia), hirurogeita hamabi euro (72€) sorraraziko dira eginiko lan-ordu bakoitzeko ogibidesari gisa, eta kopuru handiagoak izan daitezke bulegotik irtetearatik, bidaiak egiteatik eta dietengatik.

²

Eskuragarri Bizkaiko HJAEOn web orrian: <http://www.apinet.net/ogibidesaris.htm>



Irizpide hori erabiltzeko, aldez aurretik lan-orduaren prezioa eta aurreikusitako gutxi gorabeherako denbora jakinarazi behar zaizkio bezeroari.”

(6) ”Ogibidesariak” deritzon atalean, higiezin jabetzako agente bati dagozkion ohiko jarduketa guztietarako tarifa zerrenda bat (prezioak) agertzen da. Adibidez, salerosketetako eta salerosketak egiteko aukerretarako bitartekaritzari dagokionez, hauxe xedatu da:

“Salerosketako eragiketa edo salerosketarako aukera bukatu arteko jarduera osoa eta aholkularitza direla-eta, ondasunen benetako prezioaren ehuneko hiruko (%3) ogibidesariak sortuko dira, eta gutxienez seihun eurokoak (600€)”.

Gipuzkoako HJAEOk gutxi gorabeherako lanbide-ogibidesarien mugasariak

(7) Nahiz eta “Gipuzkoako Higiezin Jabetzako Agenteen Elkargo Ofizialeko higiezin jabetzako agenteen gutxi gorabeherako ogibidesarien mugasariak”³ datarik jarri ez, gutxienez 2002tik hona indarrean daudela ondorioztatu behar da, zeren eta 18. arauan kontzeptu finkoei buruz (portzentajeei lotuta ez daudenak) ezarritako lehen eguneratzea 2003ko urtarrilekoa baita”.

(8) Hauxe ezarri du oro har “gutxi gorabeherako lanbide-ogibidesarien mugasari”en 22. arauak eta azkenak:

“Mugasariak orientazioa emateko dira, eta beti aplikatu beharko dira higiezin jabetzako agentearen eta bezeroaren arteko eztabaida sortzen bada, salbu eta idatzizko itunean kontrakoa ezartzen bada”.

(9) Araurik gehienetan, higiezin jabetzako agenteen ohiko jardueren gaineko prezioak ezartzen dira; esate baterako, 1. arauak “Era guztietako higiezin salerosketaren gaineko prezioak ezartzen ditu, epaileak agindutako enkanteak edo borondatezko enkanteak barne”:

“-Hiri-finkak (era guztietako lurak eta eraikuntzak, hiri-lurrean eta egoitzako lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian badaude kokatuta); eskualdaketaren benetako prezioaren gainean: %3.

-Landa-finkak (era guztietako lurak eta eraikuntzak, landa-lurrean eta lurzoru urbanizaezinean badaude); eskualdaketaren benetako prezioaren gainean: %4.

-Industri finkak (era guztietako lurak eta eraikuntzak, hiri-lurzoruan badaude); fabrikak, meategiak eta ur-jauziak edo bestelako edozein industri guneak, hiri-lurzoruan kokatuta ez badaude ere, baita biltegiak, garraioko edo administrazio eta merkataritzako eraikuntzak, zerbitzu publiko eta profesionaleko eraikuntzak eta informazioarako eraikuntzak ere. Gainera, aurreko ataletan zehaztu ez diren beste ondasun higiezin guztiak ere sartzen dira talde honetan (osasuneko eta gizarte-ongizateko, gizarteko, kirolko, jolaseko, erlijioiko, kulturako eta hezkuntzako eraikuntzak eta gizarte eta

³

Eskuragarri
http://www.HJAEO.es/archivos/HJAEO_ogibidesaris.pdf

Gipuzkoako

HJAEOren

orrialdean:



zientziako jardueretarakoak, eta abar); eskualdaketaren benetako prezioaren gainean: %5.

-Probintziatik kanpoko finkak, edozein eratakoak: %5.”

(10) Halaber, hauxe ezarri da 16. arauan elkargoaren ikus-onespenari buruz:

“Gipuzkoako Elkargoak ikus-onetsi behar ditu beti Gipuzkoako Higiezin Jabetzako Agenteen Elkargo Ofizialeko agenteek emandako balorazioak, peritazioak eta irizpenak, eta ezarritako tramiteak bete eta minutak luzatuko dituzte Gipuzkoako Elkargoaren bidez. Minuten %10 atxikipena izango da agenteari zuzenean agindutako lanak direnean, eta lanak elkargoaren bitartez agintzen direnean, berriz, minutaren %20ko atxikipena izango da”.

(11) LAEZren ustez, Bizkaiko HJAEOKo gutxi gorabeherako ogibidesarien gaineko arauak eta Gipuzkoako HJAEOKo gutxi gorabeherako lanbide-ogibidesarien mugasarien gaineko zenbait xedapenek LALren 1. artikulua hautsi dute. Hori dela-eta, LAEZk, 2007ko azaroaren 8an, ikusitako jokabideei buruzko ohar laburra eta informazioa igorri zion LBNko Ikerketa Zuzendaritzari, Estatuak eta Autonomia Erkidegoak Lehiaren Alde egiteko dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legearen 2 eta 5. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz.

(12) LBNko Ikerketa Zuzendaritzak, 2007ko azaroaren 29an, jakinarazpen bat igorri zion LAEZri espediente hau izapidetzeko eskumena baduela adierazteko. Halaber, arlo horretan buruturiko jarduketei buruzko barne-ohar bat gehitu zitzaion jakinarazpenari, eta ohar horretan Europako Batzordearekiko gutun-trukaketa bat zekarren. Izan ere, lanbide-elkargoek Estatuan aplikatzen dituzten gutxi gorabeherako ogibidesarien baremoei buruzko balorazioa eskatzen zitzaion Europako Batzordeari.

(13) LAEZk, 2008ko urtarrilaren 30ean, eginiko ikerketak artxibatzeko proposamena helarazi zion Auzitegi honi. Honako oharbide hauek ditu oinarri:

“Horregatik, eta honako hauek kontuan izanik:

- Lanbide-elkargoei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legearen indarraldia, lanbide-elkargoek gutxi gorabeherako ogibidesarien baremoak ezartzea babesten duena.

- Europako Batzordearen Lehiaren Zuzendaritza Nagusiak berretsi egiten du ezen badirudi hautsi egin dela EEIko 81. artikulua lanbide-elkargoen ogibidesariak ezartzean, eta lehiaren murrizpen hori dela-eta, Europako Batzordearen Lehiaren Zuzendaritza Nagusiak murrizpena konpontzeko deia egiten dio Espainiako eskumeneko agintaritzari, 2/1974 Legearen 5.ñ) artikulua kentzeko ez ezik, EEIko 81. artikuluko debekua aplikatzeko ere.

- LBNko Ikerketa Zuzendaritzak lehia sustatzeko eginkizunak betetzearen eremuko hainbat jarduketa egitea erabaki du.

- Jokabide hori ez da soilik Bizkaiko eta Gipuzkoako Higiezin Jabetzako agenteen



elkargo ofizialetan bakarrik gertatzen, baizik eta, neurri handiagoan edo txikiagoan, lanbide-elkargoetan ohiko jarduna da.

Lehiaren Aldeko Euskal Zerbitzuak hauxe proposatzen dio Lehiaren Aldeko Euskal Auzitegiari: ofizioz ikusitako jokabidearen gaineko zigor-espedita ez hastea, Bizkaiko eta Gipuzkoako Jabetzako agenteen elkargo ofizialek gutxi gorabeherako ogibidesariak argitaratzeari buruzkoa”.

(14) Hala ere, LAEZk gaia artxibatzeke proposamenean lehia sustatzeko neurriak hartzea ere proposatzen da:

“Halaber, zigor-espedita ez hasteko proposamena onartuz gero, hauxe PROPOSATUKO dio Lehiaren Aldeko Euskal Zerbitzuak Lehiaren Aldeko Euskal Auzitegiari:

1 Gaia planteatzea Lehiaren Aldeko Kontseiluak azter dezan.

2 Lehiaren Aldeko Euskal Zerbitzuak lehia sustatzeko hainbat jarduketa burutzea, hala nola gomendioak bidaltzea lanbide-elkargoari, eta horren kopiak igortzea Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari, zeren sail horrek baitu elkargoen eta Kontseiluaren estatutuak behin betiko onesteko eskumena, baita estatutuok berritzeko ere”.

(15) 2008ko ekainaren 23an, espeditetan dagoen dokumentazioa bidali zion LAEZk LAEAri.

(16) LAEAren osoko bilkurak espedita hau erabaki eta eman zuen 2008ko urriaren 29an.

(17) Ebazpen hau oinarritzen da honako:

ZUZENBIDE-OINARRIAK

(18) LALko 49.3. artikuluan xedatu denez, LBNko Kontseiluak, Ikerketa Zuzendaritzak proposatuta, Lege horren 1. eta 2. artikuluek debekaturiko jokabideak ustez izanaren ondoriozko prozedurak ez hastea erabaki dezake, baita horien jarduerak artxibatzea ere, baldin eta legea urratu ez denaren inguruko aztarnarik ez dagoela irizten badio. Halaber, hauxe ezarri du zortzigarren xedapen gehigarriak: “[I]Legean Lehiaren Batzorde Nazionala eta horren zuzendaritza organoak aipatzen direnean, haien funtzioei, administrazio-ahalmenari eta prozedurei dagokienez, arloan eskumena duten autonomia-erkidegoetako izapide eta ebazpenerako organoak barne direla ulertu behar da, noiz-eta Lege horren 13. artikuluan ezarritako eskumenei buruzkoak direnean”. Hori dela bide, LAEA da LAEZk gaia artxibatzeke eginiko proposamenari buruzko ebazpena emateko organo eskuduna.



(19) LAEZk artxibatzeke eginiko proposamenari buruzko ebazpena eman dezan, Bizkaiko HJAEOKo gutxi gorabeherako ogibidesarien gaineko arauak (1) eta Gipuzkoako HJAEOKo gutxi gorabeherako lanbide-ogibidesarien mugasariak LALren 1. eta 2. artikulua urratzeko modukoak diren ala ez baloratu behar du auzitegiak eta, hala denean, jokabide horiek salbuetsita dauden ala ez, LALren 4. artikulua dela bide.

(20) LALk debekatu egiten ditu lehia murrizten duten akordioak, erabakiak eta gomendioak 1. artikuluan, eta merkatuko lehian nagusitasuna izatearen gehiegizko boterea, berriz, 2. artikuluan.

(21) LALren 1.1. artikulua debekatu egiten du merkatu nazional osoaren edo zati baten lehia galarazteko, murrizteko edo faltsutzeko edo hori guztia egin dezakeen akordio, erabaki edo talde-gomendio oro edo hitzartutako edo aldi berean nahita eginiko jardun oro, eta bereziki prezioak zuzenean edo zeharka edo merkataritzako edo zerbitzuko bestelako baldintzak jartzean datzan jarduna.

(22) Alabaina, LALren 1.3. artikuluan ondokoa xedatu da: “1. idatz-zatiko debekua ez da aplikatuko ekoizpena edo merkaturatzea hobetzeko eta ondasunak eta zerbitzuak hobetzeko edo prozesu teknikoak edo ekonomikoak sustatzeko lagungarriak diren akordioetan, erabakietan, gomendioetan eta jardunetan, baina alde aurretik ez da horretarako erabakirik hartu behar, betiere baldintza hauek betetzen badira: a) Horien guztien abantailan berdintasunez parte hartzeko modua ematen badiete kontsumitzaileei edo erabiltzaileei. b) Interesa duten enpresei helburuak betetzeko ezinbestekoak ez diren murrizpenak ezartzen ez badizkiete. c) Enpresa parte-hartzaileei ezarritako produktuen edo zerbitzuen funtsezko zati baten inguruko lehia desagerrarazteko posibilitatea izateko modurik ez uztea”.

(23) LALren 2.1. artikulua debekatu egiten du “merkatu nazional osoan edo zati batean nagusia den enpresa ororen gehiegizko ustiapena”. LALren 2.2. artikuluan, gehiegizko jokabideen adibideak agertzen dira, horien artean, “a) prezioak zuzenean edo zeharka edo berdintasunezkoak ez diren merkatuko edo zerbitzuko bestelako baldintzak ezartzea”.

(24) Bestalde, LALren 4. artikulua (“*Legez salbuetsitako jokabideak*”) ondokoa xedatu du:

“1. Lehiaren alde egitearen arloko erkidego-xedapenen balizko aplikazioari kalterik egin gabe, atal honetako debekuak ez zaizkie aplikatuko lege bat aplikatzearen emaitzako jokabideei.

2. Atal honetako debekuak lehia murrizteko egoeretan aplikatuko dira, bestelako administrazio-ahalmenak erabiltzearen emaitzako egoeretan edo herri-botereek edo herri-enpresek lege babesik gabe jardun izanaren ondoriozko egoeretan.”

I. Lanbide-elkargoak eta lehiaren zuzenbidea: eboluzio historikoa

(25) Lanbide-elkargoak, tradizioz, haien jarduerak lehiari buruzko araudiko



jarduketa-eremutik kanpora uztearen alde agertu izan dira. Hori dela-eta, komenigarria da erkidego- eta nazio-lehiari buruzko araudia lanbide-elkargoen jarduerari pixkanaka aplikatu izanaren gaineko azterketa historiko labur bat egitea, eta bereziki prezioen inguruko akordioen, gomendioen eta erabakien gainean.

(26) Hasieran, Lanbide-elkargoei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legeak (Lanbide-elkargoen Legea) indarrean zegoen artean hainbat aldiz erreformatu ondoren, ordezkari organikoko entitateen estatusa onartzen zien lanbide-elkargoei, espainiarrek ordezkari organikoko eginkizun publikoetan eta onura orokorreko gainerako eginkizunetan parte hartzeko. Hala, autorregulaziorako ahalmen zabalak eskaintzen zizkien.

(27) Ondoren, Espainiako Konstituzioak onarpen konstituzionala eman die lanbide-elkargoei (EKren 36. artikulua):

“Legeak lanbide-elkargoen erregimen juridikoaren berezitasunak eta tituludun lanbideen jarduna arautuko ditu. Elkargoen barne-egiturak eta funtzionamenduak demokratikoak izan behar dute.”

(28) Lanbide-elkargoen arauari buruzko abenduaren 26ko 74/1978 Legeak egokitu zuen marko demokratiko berrira Lanbide-elkargoen Legea, eta lehia librearen murrizpen ugari eta funtsezkoak zekartzan. Hori dela-eta, LAAk eginiko lehen kontsulta-txostenaren ardatza (“Lanbideen Jardun Libreari buruzko txostena”) lege hura izan zen (1992)⁴:

“Lanbide-zerbitzuak ematean lehia librearen jokoa galarazten duen araudi berriko zenbait ezaugarri aldatzeko proposamena da txostenaren muina. Geroago ikusiko denez, neurizko proposamena da hori, lanbide horiek dituzten murrizpen guztiak kentzea planteatzen ez duena –profesionalak elkargokideak izatea nahitaez, esate baterako–, baizik eta nazioaren ekonomiarako kaltegarria dena desagerraraztea: lanbide-zerbitzuen prezioak askatasunez ezartzea galarazten duten arauak. Lehiarako beste murrizpen batzuk kentzea ere proposatzen du erreformak (publizitatea, negozio-egitura, etab.); izan ere, garrantzi gutxiagokoak direla badirudite ere, besteak bezain kaltegarriak dira eta ez dute inolako justifikaziorik. Erreformaren xedea lanbide-zerbitzuak emateko erregimena egokitzea da, eta Estatuko jarduerarik gehienei dagoeneko aplikatzen zaien erregimena dugu: merkatu-ekonomiaren ezaugarri nagusia den lehia librearen erregimena”⁵.

⁴ “Lanbideen Jardun Libreari buruzko Txostena: Elkargoko lanbideei buruzko araudia Espainiako indarreko lehia libreari buruzko erregimenera egokitzeko proposamena”, 1992ko ekaina, LAA.

<http://www.CNCompetencia.es/PDFs/OtrosInf/2.pdf>. LAAk lanbide liberaletako lehia handiagoaren alde egin du ondorengo arlo orokorreko bi txostenetan: “Zerbitzuetan lehia librea erraztu eta monopolioek egindako kaltea konpontzeko irtenbide politikoak” (1993) eta “Lehia Espainian: Balantzea eta proposamen berriak” (1995). 1985ean, Lankidetzaren eta Garapen Ekonomikorako Erakundeak (OCDE) eginiko “Competition Policy and the professions” txostenak (OCDE) egoera kezkagarriaren berri eman du lanbide liberaletan lehia murrizteko neurri ugari izateari buruz; izan ere, murrizpen horiek ez dira bateragarriak merkatuko ekonomiarekin eta lehia libreko sistema batekin.

⁵ Lanbideen Jardun Libreari buruzko txostena, “Txostenaren plana”, 6. or.



(29) Lanbide-elkargoek “legegilea harrapatzeko” jarduna salatzen zuen LAAk; hori dela-eta, “salbuespeneko pribilegioak” zituzten lanbide-elkargoek”:

“Bereziki zaila izan da herrialde gehienetan lanbide-zerbitzuak emateko lehia ezartzea. Nahiz eta zailtasun horren arrazoiak ugariak izan, horietako bi aipatu beharra dugu. Lehenik eta behin, politikaren eraketa. Herrialderik gehienetan, tituludun lanbideetako lanpostuen sektorekoak dira lanpostu garrantzitsuetan ari diren politikaririk gehienak. Populazio osoaren gaineko portzentajea, berriz, ez da ehuneko hamarrera ere iristen. Horren ondorioz, beste kasu batzuetan baino askoz errazagoa da erreformak indarririk gabe uzteko presio-taldeen lana, zeren eta politikari askoren hizkera, kultura, jatorria eta seguru asko norakoa ere liberalak deritzen lanbideen artean baitaude. Hala, bada, politikarien gizarte-eraketan aldaketaren bat gertatzen denean, errazagoa da horrelako erreformak burutzea.”⁶

(30) LAAk lehia librearen hiru murrizpen-kategoria bereizten ditu: sartzeko barrerak, lehiaren murrizpenak (lurraldekoak, publizitatea, negozio egitura, etab.) zuzenean prezioekin eta prezioen inguruko murrizpenekin lotuta ez daudenak. Azken horiei dagokienez, hauxe zioen LAAk:

“Era askotakoak dira elkargoko lanbideek prezioak askatasunez finkatzearen inguruko murrizpenak. Gutxieneko tarifak daude, sektore baten alde egiteko ohikoak direnak. Badira gutxi gorabeherakoak, kartelen ohikoak direnak, baina finakoak ere badira. Zifra absolutuetan finkaturikoak eta portzentajeetan finkaturikoak daude. Badira sinpleak, baina oso zehatzak ere bai. [...]. Ogibidesarien gaiak -hala dei daiteke lanbide-zerbitzuen prezioa- zein beste edozein prezioenak berebiziko garrantzia eta toki nabarmena dute lehiaren politikan. Hori dela-eta, horiei buruz epigrafe berezia dago. Prezio librea merkatu-ekonomiaren oinarrizko instituzioa da. Alderdiek –bezeroek eta eskaintzaileek– erabaki behar dituzte prezioak. Gizarteari utzi behar zaio gaia ebatzen, eta Estatuak alde batera egon behar du batzuen eta besteen borondatea behartu barik, oso egoera jakin batzuetan izan ezik. [...]. Aztertutako lanbide guztiek ez dituzte gutxieneko tarifak, finakoak edo gutxi gorabeherakoak, baina horietako askok bai. Horregatik, funtsezkoa da puntu hori izatea erreformaren ardatza lanbide-zerbitzuak ematean lehia ezarri behar bada”⁷.

(31) Ondorio horien ildotik, Lanbide-elkargoen Legearen 5.ñ) artikulua kentzea proposatzen zuen LAAk beste lege-aldaketa batzuen artean. Horri esker, lanbide-elkargoek, beren lurralde-eremuan, “lanbideen gutxieneko ogibidesariak arautu zitzaizketen, ogibidesariak mugasari, tarifa edo tasa gisa sortzen ez direnean.”

(32) Halaber, elkargoaren ikus-onetsiari buruzko atal kritiko bat zekarren LAAk,

⁶ Lanbideen Jardun Libreari buruzko txostena, “Askatasuna lanbideen jardunean txertatzeko ahaleginen beharra”, 47. or. Europako Batzordeak “Legegilea harrapatzea” lanbide liberalen eremuan ere salatu du Europako Batzordearen Jakinarazpenean, “Lanbide-zerbitzuak – Erreformaren jarraipena – Lanbide-zerbitzuen lehiari buruzko txostenaren jarraipena”, COM(2004) 83, 2004ko otsailaren 9koa (SEC(2005) 1064, 25. epigrafe. 10. or.

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2005:0405:FIN:ES:PDF>

⁷ Lanbideen Jardun Libreari buruzko Txostena, “Prezioak askatasunez finkatzeko murrizpenak lanbide-zerbitzuetan”, 23. or.



baina ez zeritzon lehentasunezkoa hura berehala kentzeari; izan ere, soilik Espainian aplikatzen da:

“Gure aburuz, murrizpen handiak dakartza ikus-onetsiak lehia, ogibidesariak kobratzearekin, gutxieneko ogibidesariak finkatzearekin edo prezioak askatasunez finkatzeko beste muga batzuekin konbinatzen baitira. Baina, ezaugarri ekonomiko horiek liberalizatzen diren neurrian, ikus-onetsiak ez du zertan txarra izan lehiarako. Azken finean, prezioen kontrolik ez badago eta, jakina, elkargoaren bitartez nahitaez egin beharreko kobrantzarik ez badago eta soilik alde teknikora eta ez-ekonomikora mugatzen bada ikus-onetsia, orduan egin dezaketen funtzio bat betetzeko balio dezake, beste herrialde batzuetan administrazioak betetzen duen funtzioa, baina ez dugu arrazoirik ikusten –administrazioek hala erabakitzen duten bitartean– jarduera hori elkargoen bitartez egiteari ez eusteko.

Egia da ikus-onetsiak botere garrantzitsua ematen diela elkargoei, baina ez dago botere horretaz arduratzerik botere hori lanbideen arteko lehia murrizteko erabiltzeko modurik ez dagoen bitartean. Nolanahi ere, eta inertziaz ikus-onetsia elkargoko kideak kontrolatzeko erabiltzeko tentazioan norbait erortzea aurreikus daitekeenez, zaintza-fasea has liteke: fase horretan elkargoen esku utziko litzateke ikus-onetsia ematea, eta lehiaren kontrako helburuekin erabiltzen den ala ez begiratuko litzateke.

Ingeniariek eta arkitektoek proiektuei ikus-onespena ematea kalkuluen fidagarritasun-bermea dela irizten dio jendeak. Hori ez da egia. Gaur egun, elkargoek eurek aitortzen dutenez, elkargoek ematen duten ikus-onespena burokratikoa da soilik. Proiektuei ikus-onespena emateagatik elkargoa ez da kalkulu zuzenak izatearen erantzulea eta, beraz, ez du obra segurua izatearen inguruko erantzukizunik hartzen”⁸.

(33) Hori dela-eta, elkargoaren ikus-onespena “zaintzea” proposatzen zuen LAAk, eta 5.q) artikulua aldatzeko gomendioa besterik ez zuen egiten, ondoko testu hau gehituta: "Ikus-onespenak ez dakar ez ogibidesaririk ez kontratuko gainerako baldintzarik; izan ere, alderdiek askatasunez erabaki dezaten uzten dira horiek.

(34) Hitz batean esanda, 16/1989 Legea lanbide-elkargoei aplikatzeko oinarriak jarri zituen “Lanbideen Jardun Libreari buruzko txostenak”⁹.

(35) Aldi berean, lanbide-elkargoen arloko lehen zigor-erabakia hartu zuen Europako Batzordeak 1993an, eta Europako Erkidegoen Itunaren (EEI) 85. artikulua –gaur egun EEIren 81. artikulua– kontratatzat jo zuen Italiako aduanako agenteek gutxieneko tarifak ezartzea nazioko legeriaren itzalpean¹⁰. 1995eko beste Erabaki batean, Industri Jabetzako Agenteen Elkargoak (IJAE) orduan indarren zegoen Lanbide-elkargoaren Legearen 5.ñ) artikuluan itzalpean onetsitako nahitaezko gutxieneko

⁸ Lanbideen Jardun Libreari buruzko Txostena, “Prezioak askatasunez finkatzeko murrizpenak lanbide-zerbitzuetan”, 23. or.

⁹ Vid., LAAren Ebazpena, 1992ko azaroaren 20koa, 313/92 espedientea, EAE-Nafarroako Arkitektoen Elkargoa, eta LAAren Ebazpena, 1993ko abenduaren 30ekoa, 333/92 espedientea, Placonsa.

¹⁰ Batzordearen Erabakia, 1993ko ekainaren 30ekoa, IV/33.407 - CNSD, Egunkari Ofiziala L 203, 1993/08/13.



tarifak enpresen elkarte baten erabakia zela ebatzi zuen, lehia nabarmen murrizten zuena eta EEIren 85.3. artikulua kontrakoa zena. Gainera, ezin balia zitekeen EEIren 85.3. artikuluan ezarritako salbuespena. HJAEOK emandako argudioari erantzunez, hots, nazioko lege-markoak agenteen jokabidea babesten zuela zioen argudioari erantzunez, Europako Batzordeak Europako Erkidegoen Justizia Auzitegiaren (EEJA) jurisprudenziara jotzen du ondokoa adierazteko (EEJA)¹¹:

“(44) HJAEOK ezin adieraz dezake erantzukizunik ez duela haren jarduerak otsailaren 13ko 2/1974 Legearen (abenduaren 26ko 74/1978 Legearen bidez aldarazia) xedapenen ondoriozkoak direla argudiatuz.

HJAEOK legearen aldetik duen betebeharrak bakarrik funtzionamendurako arautegi bat ezartzea da (ikus 8. puntua). 2/1974 Legearen 5. artikuluko ñ) idatz-zatian, hauxe zehazten da: “Lanbide-elkargoei dagokie lanbideen gutxienezko ogibidesariak arautzea”, baina ez da hori egitera behartzen.

(45) Lege horrek ez du tarifarik ezartzen, ezta tarifak finkatzeko irizpiderik ere, eta elkargoen esku uzten da hori egiteko erantzukizuna. Legeak berez du murrizten prezioen lehia, baizik eta lanbide-antolaketan bildutako operadore pribatuen egintzek, betiere legeak babestuta. Izan ere, ekintza horiek ez dagozkio herri-boterearen jardunari.

(...)

(48) Estatuak kasu honetan erantzukizuna izan dezakeela suposatuta ere, HJAEOK balizko isunaren zenbatekoarekiko erantzukizuna arindu dezake inguruabar horrek gehienez, baina ezin salbuetsi lezake lehiari buruzko arauak aplikatzea [ikus bedi ildo beretik Batzordeak 41/83 gaian adierazitako jokabidea (1985eko martxoaren 20ko epaia, Italia/Batzordea)] [*Aipatu gabeko orri-oina*]. Izan ere, kideek aplikatu behar dituzten prezioak ezartzeko ahalmena enpresen elkarte bati eskualdatzen badio ere eta, beraz, Itunaren, 3. artikuluko g) hizkian, 5. artikuluko bigarren paragrafoan eta 85. artikuluan xedatu dena betetzen ez badu ere, ahalmen hori aplikatzea ezin itzuri dagokioke Itunaren 85. artikulua aplikazioari”¹².

(36) “Lanbideen Jardun Libreari buruzko txostena” eta Europako Batzordeak arlo horretan emandako Erabakiak direla-eta, Lanbide-elkargoen Legearen erreforma egin zen, lurraren eta lanbide-elkargoen arloko neurri liberazatzaileei buruzko ekainaren 7ko 5/1996 Errege Dekretu-lege baten bidez artikulatua (5/1996 EDL), ondoren lurraren eta lanbide-elkargoen arloko neurri liberazatzaileei buruzko apirilaren 14ko 7/1997 Legeak garatua (7/1997 Legea).

¹¹ EKAGk 123/83 gaian emandako epaia, 1985eko urtarrilaren 30ekoa, *BNIC/Clair*, Gom. 1985, 391. or.; EKAGk 13/77 gaian emandako epaia, 1977ko azaroaren 16koa, *INNO/ATAB*, Gom. 1977, 2115. or.

¹² Europako Batzordearen Erabakia, 1995eko urtarrilaren 30ekoa, 153 IV/33.686 – *HJAEO*, Egunkari Ofiziala L 122, 1995eko ekainaren 2an.

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=CELEX:31995D0188:ES:HTML>



(37) 7/1997 Legeak Lanbide-elkargoen Legearen 2.1. artikulua aldatu zuen. Hala, 16/1989 Legearen nagusitasuna ezarri da lanbide-elkargoen araudiko garrantzi ekonomikoa duten alderdi guztien gainetik (zerbitzu-eskaintza eta ordainketa):

“Lehia libreko erregimenean egingo dira elkargoko lanbideak, eta Lehiaren Aldeko Legeari eta Lehia Desleialaren Legeari lotuta egongo dira zerbitzuen eskaintzari eta horien prezioak ezartzeari dagokienez. Lanbide aplikagarri bakoitzaren eduki-arauko ordenamenduari buruzko legeria orokorrak eta espezifikoak eraenduta egongo dira aurrerantzean ere lanbide-jardunaren alderdiak”.

(38) Lehia libre eta LAL legea arlo horretan aplikatzea azpimarratzen direla ikusteko, 7/1997 Legeko 2.1. artikulua azkenean idatzi den modua eta aztergai dugun 5/1996 EDLn onetsitako idazketa konparatzea besterik ez dago:

“Lehia libreko erregimenean egingo dira elkargoko lanbideak, eta lanbide aplikagarri bakoitzaren eduki-arauko ordenamenduari buruzko legeria orokorrari eta espezifikoari kalterik egin gabe, Lehiaren Aldeko Legeari eta Lehia Desleialaren Legeari lotuta egongo dira zerbitzuen eskaintzari eta horien prezioak ezartzeari dagokienez.” (5/1996 LED, 21. artikulua, Auzitegiak azpimarraturikoa).

(39) 5/1996 EDLren 2.1. artikulua idatzita dagoen modua dela-eta legeria orokorrak eta, bereziki, Lanbide-elkargoen Legeak lehiaren kontrako murrizpenak dituztela pentsaraz badezakete ere, lanbidearen alderdi ekonomikoei dagokienez (zerbitzuen eskaintza eta prezioak), 7/1997 Legeak behin betiko argitu du anbiguotasun hori.

(40) Ildo beretik, 7/1997 Legeak Lanbide-elkargoen Legearen 2.4. artikulua aldatu zuen, 16/1989 Legearen nagusitasuna islatzeko; izan ere, lanbide-elkargoen akordio, erabaki edo gomendio guztien aurretik dago lege hori:

“Ekonomiaren aldetik garrantzizkoak diren eta elkargoak ematen dituen akordioek, erabakiek eta gomendioek Lehiaren Aldeko uztailaren 17ko 16/1989 Legearen 1. artikuluko mugak errespetatuko dituzte, elkargoek lege horren 3. artikuluan ezarritako baimen berezia eskatzeko aukerari kalterik egin gabe”.

(41) Lanbide-elkargoei buruzko Legearen 5. artikulua dela-eta, Ebazpen honetan interesatzen zaigunari dagokionez, aldaketa nabarmenak izan ziren 5.ñ) eta 5.q) artikuluan.

(42) Lehenik eta behin, gutxieneko ogibidesariak erregulatzeko ahalmenaren ordez, honako ahalmen hau ezarri zen: “ogibidesarien baremoak ezartzea, baina gutxi gorabeherakoak besterik ez dira izango (5.ñ artikulua)”.

(43) Bigarrenik, LAren gomendioei jarraituz, bigarren esaldi bat gehitu zitzaion 5.q) artikuluko testuari, eta honelaxe gelditu zen: “Elkargoko kideen lanbide lanak ikuskatzea, beren-beregi hala ezarrita badago estatutu orokorretan. Ikus-onespen horretan ez daude ez ogibidesariak ez kontratuko gainerako baldintzak; izan ere,



alderdiek askatasunez ezarriko dituzte baldintzak” (5. q artikulua).

(44) Nahiz eta Lanbide-elkargoei buruzko Legean ondoren hainbat alditan aldatu den¹³, artikulua horiek ukitu gabe gelditu dira. Halaber, kontuan izan behar da ezen, 7/1997 Legearen xedapen gehigarri bakarra dela bide, [Lanbide-Elkargoei buruzko Legearen 2.1, 2.4, eta 5.ñ artikulua](#), [besteak beste](#), oinarritzko legeria dira¹⁴.

(45) Nahiz eta LAAk lanbide-elkargoei buruz emandako lehen zigor-prozedurak 1992koak izan, 7/1997 Legeak LAA/LBNren jardura handia erraztu du, halako moldez non lanbide-zerbitzuekin eta, bereziki, lanbide-elkargoekin lotutako zigor-espeditentak espediente guztien %13 baitira:

1992ko ekainetik 2008ra arteko ebazpenak	Ebazpenak orotara	Lanbide-elkargoak	Elkargoen ebazpenak orotara
Jardun debekatuak	471	63	%13,3
Zerbitzuaren ekintzen kontrako errekursoak	712	52	%7,3
Ebazpenak orotara	1.186	115	%9,7

Iturria: Lanbide-zerbitzuen eta Lanbide Ikastetxearen Sektoreari buruzko txostena, LBN (2008ko iraila)

(46) Zehazkiago, Lanbide-elkargoen Legearen 5. ñ) eta q) artikuluen aldaketak eragin nabarmena izan du ogibidesarien edo zerbitzuen prezioen eremuan.

(47) 5.ñ) artikuluari dagokionez, LAAk hainbat ebazpenetan gogorarazi zuen gutxieneko tarifek ez zutela lege-babesik:

“Arkitektoei buruzko beste ebazpen batzuetan ezarri denez (ikus Madrilgo arkitektoen 1997ko ekainaren 5eko Ebazpena, ebazpen guztien eredu gisa), lehiaren kontrako murrizpen garrantzitsua da lanbide-elkargoek gutxieneko ogibidesariak finkatzea, baina espeditentaren xedeko gertaerak jazotzean, babesa zuen lege bat garatzen zuen arau batean (kasu honetan, 2/1974 Legea). Egoera hori ikusita, Auzitegi honek ezin jar ditzake zalantzan gutxieneko ogibidesari horiek zigor-espeditente batean LALren 2.1. artikulua dela bide (...). Lurraren eta lanbideen arloko neurri liberaztatzailei buruzko apirilaren 14ko 7/1997 Legeak (lurraren eta lanbide-elkargoen arloko neurri liberaztatzailei buruzko ekainaren 7ko 5/1996 Errege Dekretu-legearen proiektu gisa tramitatzearen ondorioz) lanbide-elkargoak arautzen dituen otsailaren 13ko 2/1974

¹³ [Apirilaren 16ko 6/1999 Dekretu-legea, Lehia Liberalizatzeko eta Handitzeko Premiazko Neurriei buruzkoa](#), eta [ekainaren 23ko 6/2000 Errege Dekretu-legea, Ondasun eta Zerbitzuen Merkatuetan Lehia Handitzeko Premiazko Neurriei buruzkoa](#).

¹⁴ Tituludun lanbideen eta lanbide-elkargoen eta kontseiluen jardunari buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Euskal Legeak (18/1997 Euskal Legea) Lanbide-elkargoen Legearen 5.ñ) artikulua hitzez hitz eman baino ez du egin 24.e) artikuluan. Hori dela-eta, Auzitegi honen azterketaren ardatza Lanbide-elkargoen Legea izango da, betiere Lanbide-elkargoen Legeak eman lezakeen balizko lege-estaldurari buruz ateratako ondorioak 18/1997 Euskal Legeari erabat aplikatzeko modukoak izateari kalterik egin gabe.



Legea aldarazi zuen (...) Laburbilduz, lanbide-elkargoek gutxieneko ogibidesariak finkatzeak ez du lege-babesik, baina bazuen espediente honetako xedeko gertaerak izan zirenean”¹⁵.

(48) Horregatik, lanbide-elkargoek hartutako gutxieneko prezioen gaineko akordioak eta gomendioak zehatu dituzte hainbat alditan LAAk eta LBNk. Zehazki, nabarmentzekoa da LBNk 2007ko abenduaren 27an emandako Ebazpena. Ebazpen horretan, 385.000 euroko isuna jarri zion Las Palmaseko Odontologoaren eta Estomatologoaren Elkargo Ofizialari 16/1989 Legearen 1. artikulua hausteagatik, hain zuzen ere gutxieneko lanbide-ogibidesariak gomendatu zituela-eta. Lanbide-elkargoak hartutako zenbait erabaki izan ziren LAAren ondorioen oinarriak, baita elkargoko kideei “Gomendaturiko gutxieneko ogibidesarien zerrenda” bat (2002), “Gutxieneko gutxi gorabeherako ogibidesariak” (2003), “Gomendaturiko gutxieneko ogibidesariak” (2004) eta “Gomendaturiko ogibidesariak” (2005) zekartzaten zirkularrak bidali izana ere, baina 2005ean “Gomendaturiko gutxieneko ogibidesariak” zirela aipatzen zen web orrian. Ondoren, izendapen horren orde, beste hau jarri zen “2005eko gutxi gorabeherako ogibidesariak” (FJ 1, 5-6. orr.). Ebazpenean, 16/89 Legearen 2.1. artikuluan aipatzen zen (LALren 4. artikuluaen aurrekoa) FJ 4 delakoan, baina ez zion iritzi aplikagarria zehaturiko jokabideari.

(49) Halaber, LAAk zein LBNk lanbide-elkargoen jokabideak zehatu dituzte elkargoaren ikus-onespenaren inguruan. 1993ko abenduaren 30eko Ebazpenean, lanbide-elkargo bat zehatu zuen LAAk merkatuko nagusitasuna gehiegi erabiltzeagatik, elkargoko kide bat salbuetsitako jarduera bati ikus-onespena ematera behartzeko¹⁶. Era berean, lanbide-elkargoek obra-proiektuei ikus-onespena emateko jardunean hartutako prezioen (gutxienekoak) gaineko gomendioak zehatu dituzte bai LAAk eta bai LBNk¹⁷.

(50) Europako eremuan, 2000az gero, indartu egin dira lanbide liberalen liberazio handiagoa sustatzeko ekimenak¹⁸.

(51) 2003an, Europako Batzordeak azterlan independente bat argitaratu zuen¹⁹,

¹⁵ Vid., adibidez, LAAren Ebazpena, 1998ko maiatzaren 8koa, 390/96 espedientea, *Asturiaseko arkitektoak*, FJ 5.

¹⁶ 333/92 espedientea, *Placonsa, supra*, 9. oharra.

¹⁷ Vid., adibidez, orain arte argitaraturiko azkena, 2008ko otsailaren 26ko LBNren Ebazpena, 629/07 espedientea, *Huelvako Arkitektoen Elkargoa*, Ebazpenaren lehen idatz-zatia: “Egiaztatutzat jotzea 16/1989 Legearen 1. artikulua debekaturiko lehia-murritzeta dakarren jarduna dagoela... “Era guztietako obren burutzapen materialaren gutxi gorabeherako aurrekontuen kalkulua errazterako metodoa” egitean datzana eta elkargoko kideen artean ezagutu behar dena. Gainera, “salbuespena” justifikatu beharra dago PEM aplikatzearen emaitzakoa baino obra-aurrekontu txikiagoa denean. Horrek guztiak prezioen talde-gomendia dakar berekin, lehia murritzeta eragiten duena; izan ere, Huelvako Arkitektoen Elkargo Ofiziala jotzen da erantzulezat.”

¹⁸ 2000an, OCDEk txostena argitaratu zuen: “Competition in Professional Services”, Committee on Competition Law and Policy, OCDE, 2000ko otsailaren 22koa, DAFPE/CLP (2000) 2. <http://www.oecd.org/dataoecd/35/4/1920231.pdf>

¹⁹ “Economic impact of regulation in the field of professional services in different Member States”, Europako Batzorderako azterlana, DG Lehia, Institut für Höhere Studien (IHS) erakundeak egina, Viena, 2003ko urtarrila.

http://ec.europa.eu/comm/competition/sectors/professional_services/studies/studies.html



honako hau agerian utzi zuena: “EBko estatu askotan, lehia desitxuratzen duen oso erregulazio murriztaileari lotuta daude lanbide liberalak, eta onartezina izango litzateke jarduera ekonomiko gehienetan”²⁰.

(52) Europako Batzordeak, 2004. urtean, jakinarazpen baten bidez eman zuen “Lanbide-zerbitzuen lehiari buruzko txostena”²¹. “Prezio gomendatuak” izeneko atalean, ohar hauek egiten zituen:

“37. EBko estatu gutxi batzuetan, legegintza, kontabilitate, arkitektura eta ingeniariaren zenbait zerbitzuetako prezio gomendatuak argitaratzen dira (2. koadroa). Prezio gomendatuak, prezio finkoak bezala, eragin txar handia izan dezakete lehiari. Lehenik eta behin, prezioak zerbitzu-ematearen artean koordinatzea erraztu dezakete. Bigarrenik, kontsumitzaileari uste okerrak eragin diezazkizokete zentzuzko prezioen maila dagokienez.

38. Erakunde profesionalek iradoki dute prezio gomendatuak informazio baliagarria ematen dietela kontsumitzaileei zerbitzuen batez besteko kostuei buruz. Gainera, prezio gomendatuak ogibideak banaka ezartzeak edo negoziatzeak dakartzan kostuak murrizten dituztela ere iradoki dute, baita ogibidesariak ezartzean esperientziarik ez duten profesionalentzako ereduak direla ere. Halaber, zerbitzu konplexuetarako prezioen negoziazioaren ondoriozko transakzioak kostuak murriztu litzakete.

39. Bilaketa-gastu altuak dituzten merkatuetan, egia da onuragarria izan daitekeela kontsumitzaileentzat ohiko prezioei buruzko informazio zehatza eskuratzeko. Alabaina, prezioei buruzko informazioa emateko metodo alternatiboak daude. Adibidez, hirugarren alderdi independenteek (kontsumitzaileen elkarte batek, adibidez) ohiko prezioei buruzko informazioa edo inkesta batean oinarrituriko informazioa argitaratzea erreferentzia fidagarria izan daiteke kontsumitzaileentzat, eta aldi berean ez dira hain murriztaileak lehiarako.

40. Bestalde, profesionalek ez dute, seguru asko, prezio gomendatuetan oinarritu behar ogibidesariak finkatzeko. Profesional liberalek, beste zerbitzu-emate batzuek bezala, beharrezko esperientzia hartzen dute ogibidesariak ezartzeko. Hain murriztaileak ez diren zenbait jardunbide daude transakzioak kostuak murrizteko hala nola prezio historikoak edo inkestetan oinarrituriko prezioak.

41. Zenbait herrialdek kendu egin dituzte lanbide-zerbitzuetarako gomendaturiko prezioak azken bi hamarkadetan. Adibidez, 80ko hamarkadaren amaieran, gomendaturiko prezioak kentzeko eskatu ziren

²⁰ Europako Batzordea, “The independent study undertaken by the Institute for Advanced Studies in Vienna (IHS) found that in a large number of Member States professionals are subject to highly restrictive rules which distort competition and would be considered unacceptable in most spheres of economic activity”.

http://ec.europa.eu/comm/competition/sectors/professional_services/studies/studies.html

²¹ Europako Batzordearen Jakinarazpena, “Lanbide-zerbitzuetako lehiari buruzko txostena”, COM(2004) 83 azkena, 2004ko otsailaren 9koa.

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2004:0083:FIN:ES:PDF>



Finlandiako agintaritza eskudunak zuzenbideko profesionalei, arkitektoei eta beste lanbide batzuei. 90eko hamarkadan, juristentzako prezio gomendatuak abolitu ziren Herbeheretan eta arkitektoentzat Frantzia. Azken bi urteetan, arkitektoentzako eta eraikuntzako enpresentzako prezio gomendatuak ere kendu ziren Erresuma Batuan”²².

(53) Europako Batzordeak ez du aztertu elkargoen ikus-onetsia orain arte, soilik Espainian dagoen ahalmena baita, baina “Lanbide-zerbitzuen lehiari buruzko txosten”ean lanbide liberaletarako erreserbatutako eskubideei buruz adierazitako zenbait gomendio badirudi elkargoen ikus-onetsiari ere aplika dakiokela oso-osorik:

“55. Hirugarrenik, beharbada erreserbatutako eskubideak ken litezke kalitatea bermatzeko hain mekanismo murriztaileak ez daudenean. Zenbait merkatutan, adibidez, posible izango litzateke kalitatea bermatzea egiaztapen independentearen edo kalitate kontrolen bidez. Merkatu horietan, askatasunez erabaki dezakete kontsumitzaileek gaitutako edo egiaztatutako zerbitzu-emaile batengana jo nahi duten”²³.

(54) 2005ean, “Lanbide-zerbitzuetako lehiari buruzko txostena”ren “Jarraipen txostena” argitaratu zuen Batzordeak jakinarazpen batean, non lanbide liberalen lehia librearen araudi murriztaileak eta gomendioak desagerrarazteko eskatzen zitzaizen EBko estatuei, eta bultzatu egiten zituen eskumena duten agintari nazionalak lehia murrizten duten lanbide-elkargoen erabakien eta gomendio kontra egitera²⁴. “Jarraipen Txostena”rekin batera datorren Europako Batzordearen pertsonalaren lan-dokumentuan honelaxe aipatzen ditu gutxi gorabeherako ogibidesarien baremoak:

“80. Recommended fees and reference scales can still act to facilitate price coordination. There are other less distorting ways to provide consumers with a ‘guide’ to prices. For instance, active monitoring by consumer associations on pricing and the collection and publication of survey based historical price data by independent organisations. Ways can also be developed to provide customers with costs of the professional service ex ante, at the moment of giving the mandate. Certainly scales which do not help the consumer to know in advance how much they will have to pay (either because of their complexity or because they are not public) are totally unjustifiable. The Commission Services urge all involved to eliminate the use of recommended fee scales as soon as possible”²⁵.

(55) Halaber, Belgikako Arkitektoen Elkargoaren kontra 2004an hartutako zigor-

²² “Zerbitzu profesionaletako lehiari buruzko txostena”, *supra*, 21. oharra, 13-14. orr.

²³ “Zerbitzu profesionaletako lehiari buruzko txostena”, *supra*, 21. oharra, 17. or.

²⁴ Europako Batzordearen Jakinarazpena, Lanbide-zerbitzuak – Erreformaren jarraipena – Lanbide-zerbitzuetako lehiari buruzko txostenaren jarraipena”.

²⁵ “Progress by Member States in reviewing and eliminating restrictions to Competition in the area of Professional Services”, Commission Staff Working Document SEC(2005) 1064, 2005eko irailaren 5koa, 21. or.

http://ec.europa.eu/comm/competition/sectors/professional_services/reports/annex.pdf
[ingelesez]



erabakia nabarmentzen zen Jarraipen Txostenean²⁶, non nahita ezarri baitzen 100.000 euroko “neurritzko” zehapena. Europako Batzordeak erabaki horretan irizten zionez, Belgikako Arkitektoen Elkargoaren gutxiengo gutxi gorabeherako ogibidesariak prezioen talde-gomendioa ziren, lehia murrizteko helburua zuena eta ondorio bera izan zezakeena, EEIren 81.1. artikuluaen kontra. Halaber, lehiaren murrizpen hori ez datzekio lanbidea behar bezala burutzeari²⁷. Azkenik, Batzordearen iritziz, 81.3. artikuluan ezarritako salbuespena ezin aplikatu dakioke gutxiengo ogibidesarien baremoari.

(56) Europako Parlamentuak²⁸ eta lehiaren aldeko agintari nazionalak babestuta daude Europako Batzordeak buruturiko jarduketak, eta hori lagungarria izan da lanbide liberalen prozesu askatzailea EBko estatuen politika ekonomikoan kokatzeko. Espainian, azken hiletan, 1990eko lehen urteetako indarra berreskuratu zuen prozesu horrek; ondorioz, 7/1997 Legea sortu zen:

(57) 2008ko ekainaren 18an, bere txostena argitaratu zuen: “Herri-administrazioentzako gomendioak merkatuak eraginkorrago arautzeko eta lehia errazteko” (“Herri-administrazioentzako gomendioak”)²⁹. Txostenak zekarrenez, prezioak finkatzearen antzeko ondorioak zituzten gutxi gorabeherako tarifek, eta Lanbide-elkargoen Legearen 5.ñ) artikulua kentzea gomendatzen zuen:

“*Deskribapena.* Lurraren eta lanbide-elkargoen arloko neurri liberatzaileei buruzko 7/1997 Legeak lanbide-elkargoen lehia kendu zuen gutxiengo ogibidesariak ezartzeko, baina elkargoek gutxi gorabeherako ogibidesarien baremoak onesteko posibilitatea eman zuen. Alabaina, LAak berak 1992ko txostenean adierazia zuenez, “kontzienteki paraleloak diren jardunak” deritze zuzenbidean gutxi gorabeherako tarifek.

(...)

Hala eta guztiz ere, alde batetik baremoak benetako murrizpenak dira lanbide-zerbitzuak ematen dituztenen prezioak askatasunez finkatzeko askatasunari dagokionez, noiz-eta prezioa funtsezko faktorea den merkatu baten lehia eraginkorra garatzeko. Bestalde, beste lanbide-zerbitzuetako merkatuetan aukeratzeko ahalmena erabiltzeko gai izan dira eta badira kontsumitzaileak, non gutxi gorabeherako baremorik ez dagoen, betiere zenbait kasutan ahalmen horiei eusteko arrazoi berezirik egon barik.

Gainera, beste jarduketa batzuk daude, hala denean, kontsumitzailea babesteko helburua behar bezala beteko luketenak (edo justizi administrazioaren informazio-eskaerak, hala

²⁶ Europako Batzordearen Erabakia, 2004ko ekainaren 26koa, COMP/38.549 - PO/L'Ordre des Architectes belges.

<http://ec.europa.eu/comm/competition/antitrust/cases/decisions/38549/en.pdf> [ingelesez]

²⁷ 2002ko otsailaren 19ko SEEJA, C-09/99 Gaia *Wouters*, 1577. gomendioa, 97.

epigrafea.

²⁸ European Parliament Resolution on follow-up to the report on Competition in Professional Services, 2006ko urriaren 12koa, INI/2006/2137.

<http://www.europarl.europa.eu/oeil/FindByProcnum.do?lang=2&procnum=INI/2006/2137>

[ingelesez]

²⁹ Txostena: “Gomendioak herri administrazioei, merkatuen erregulazio eraginkorrago izateko eta lehia bultzatzeko”, LBN, 2008ko ekainaren 18koa.

<http://www.CNCompetencia.es/PDFs/OtrosInf/13.pdf>



denean) hala nola aurrekontuan aurkeztu beharra, publizitate askatasuna, edo *ex post* azterlanak edo estatistikak egitea. Azkenik, ez dago ebidentzia argirik ondorioztatzeko tresna horrek benetako kontsumitzaileak babesteko balio izan duela, gehiegizko erabileratik babesteko hain zuzen.

Gomendioa. LBNk beste behin dio Europako Batzordearen ildotik desagerrarazi behar dela lanbide-elkargoek gutxi gorabeherako ogibidesarien baremoak ezartzeko duten ahalmena”.³⁰

(58) Abuztuaren 14an, lanbide-zerbitzuen eta lanbide-elkargoen araudiaren erreformari ekitea erabaki zuen lehia handiagoa bultzatzeko³¹.

(59) Azkenik, irailaren 15ean, “Lanbide-zerbitzuen Sektoreari eta Lanbide-elkargoei buruzko txosten” bat argitaratu zuen LBNk (“Lanbide-zerbitzuei buruzko Txostena”)³², non lanbide-jardun librea mugatzen dituzten bi arau motetako lehia-murrizpenak txikitzea gomendatzen baita:

“1. Sartzeko barrerak dakartzaten arauak, eta aldi berean bi eratakoak izan daitezke: titulazioa exijitzea edota elkargoko kidea izatea exijitzea.

2. Jardun librea mugatzen duten arauak”³³.

(60) Gutxi gorabeherako ogibidesarien baremoei dagokienez, haxe agerrarazi da bereziki “Lanbide-zerbitzuei buruzko Txostenean”:

“149. Lehiaren Batzorde Nazionalak berriki gomendatu du posibilitate hori kentzea [*Aipatu gabeko oin-oharra*], eta berretsi egin du, LAAk 1992ko bere txostenean zioen moduan, lehiaren zuzenbidean “kontzienteki paraleloak diren jardunak” deritzela gutxi gorabeherako tarifei, betiere prezioak finkatzearen antzeko azken ondorioekin. Ez du kartel bat ezartzen, baina modu berean jokatzeko dute partaideek, zeren lehiakideen jokabidea zein izango den aurrez jakin baitezakete.

150. Izan ere, prezioen gomendioek oso zalantzazko abantailak emateaz gain, gomendio horiek areagotu egin dezakete prezioak merkatuan dauden enpresen artean koordinatzeko posibilitatea”³⁴.

(61) “Lanbide-zerbitzuei buruzko Txostenak” 1992an baino askoz jarrera

³⁰ “Gomendioak herri-administrazioei...”, *supra*, 29. oharra, 34. or.

³¹ Ministroen Kontseiluak 2008ko abuztuaren 14an enpresa txiki eta ertainen egiturazko erreformari eta finantzazioa bultzatzeari buruzko Erabakia. Hogeita batgarrena: “Ekonomia eta Ogasun Ministerioak Lanbide-zerbitzuen Legearen aurreproiektu bat igorriko dio Gai Ekonomikoetarako Gobernu Batzorde Eskuordetuari 2008ko abenduaren 31 baino lehen, ondoren Ministroen Kontseiluan tramitatzeko. Lege aurreproiektuak indartu egin behar du lanbideetan askatasunez sartzeari buruzko printzipioa, justifikatu gabeko murrizpenak kendu eta erabiltzaileen eta kontsumitzaileen babesa indartu behar du, lanbide-elkargoak berritzea bultzatuz” (2008ko abuztuaren 15eko BOE).

³² “Zerbitzu profesionalen sektoreari eta lanbide-elkargoei buruzko txostena”, LBN, 2008ko iraila.

³³ “Zerbitzu profesionaleri buruzko txostena”, *supra*, 32. oharra, 18. epigrafean, 5. or.

³⁴ “Zerbitzu profesionaleri buruzko txostena”, *supra*, 32. oharra, 27. or.



kritikoagoarekin aztertu du elkargoaren ikus-onetsia:

“158. Aurrekoa bezalako kasuak direla-eta (Ebazpena), berriz planteatu behar dira ikus-onetsiak kontsumitzaileentzat dakartzan “onurak” “kostuen” aurrean, hain zuzen ere ikus-onespena emateak profesionalen prezioak homogeneizatzeko duen azken ondorioa izateko edo profesionalen arteko lehia librea “oztopatzeko” posibilitatearen aurrean.

159. TPLk honako posibilitate hau ezartzen du soilik: elkargoak profesionalen lanei ikus-onetsia ematea, hori bai, ikus-onespen horren monopolioa ezarrita. Baina badira beste arau eta erabaki batzuk, eta ez bakarrik elkargoarenak, ondoren ikus-onetsia izatea exijitzen dutenak. Esate baterako, administrazioak lehiaketa bat egiten duenean eta elkargoak ikus-onetsitako proiektuak aurkeztea exijitzen duenean.

(...)

164. Hori guztia dela-eta, beharrezkotzat jotzen da sakon berrikustea ikus-onespena: xedea, edukia, nahitaezkotasuna, elkargoaren erantzukizuna eta prezioa”³⁵.

II. Bizkaiko HJAEOKo eta Gipuzkoako HJAEOKo “gutxi gorabeherako ogibidesarien” eta LALren 1. artikularen arteko bateraezintasuna

(62) Ebazpen honen aurrekarietan egiaztatuenez, Bizkaiko HJAEOKo “Higiezinaren jabetzako agenteen lanbide-jarduketan ziozko gutxi gorabeherako ogibidesarien arauak” eta Gipuzkoako HJAEOKo “gutxi gorabeherako ogibidesari profesionalen mugasariak” deritzenetan elkargokideentzako prezioen talde-gomendioak agertzen dira.

Europako Batzordeak eta LAA/LBNk berdintsu jotzen dutela-eta (betiere erkidego eta nazio-auzitegiek babestuta), prezioen talde-gomendioek EEIren 81. artikulua hautsi dezakete (erkidego barruko merkataritzan eragina badute), baita LALren 1. artikulua ere, xedeagatik zein ondorioengatik. LAEAK berak 250.000 euroko zigorra ezarri zion enpresa-elkarketa bati prezioen talde-gomendio bategatik hark emandako lehen zehapen-ebazpenean³⁶, eta 2008ko otsailaren 20ko Ebazpenean egiaztatu zuenez, gutxi gorabeherako baremoen ogibidesariak lehiarako ondorio murriztaileak dituzte hortzetako zerbitzuaren eremuan; izan ere, errealitate hori elkargoko lanbide gutzietan agertzen da seguru asko.³⁷

(63) Gutxi gorabeherako ogibidesarien baremoei dagokienez, hauxe adierazi du LAA/LBNk Lanbideen Jardun Libreari buruzko Txostenean³⁸, Herri-administrazioentzako gomendioetan³⁹ eta Lanbide-zerbitzuei buruzko txostenean⁴⁰:

³⁵ “Lanbide-Zerbitzuei buruzko txostena”, *supra*, 32. Oharra, 29. or.

³⁶ LAEAREN Ebazpena, 2007ko ekainaren 18koa, 1/2006 espediente, *ASETRAVI*.

³⁷ 1/2007 espediente, *IMQ*, 237. epigrafea, 59. or.

³⁸ *Supra*, 4. oharra.

³⁹ *Supra*, 29. oharra.

⁴⁰ *Supra*, 32. oharra.



gutxi gorabeherako tarifek lehia murrizten dutela eta, beraz, LALren 1. artikulua debekatuta egoteko modukoak direla. Halaber, gutxieneko zenbait orientazio-ogibidesari zehatu zituen 2007ko abenduaren 27ko Ebazpenean (Las Palmaseko Odontologoen eta Estomatologoen Elkargo Ofiziala), eta lehia murrizteko dituen ondorioak gutxi gorabeherako ogibidesari finkoen baremoaren baliokideak dira.

(64) Bestalde, Europako Batzordeak Lanbide-zerbitzuen lehiari buruzko txostenean⁴¹ eta Jarraipeneko txostenean⁴² defendatu duenez, lanbide-elkargoen gutxi gorabeherako ogibidesariak hautsi egiten dute EEIren 81. artikulua. Zehazkiago, espedientean dagoen eta LBNren Ikerketa Zuzendaritzarena den oharrean ezarri denez, Espainiako lanbide-elkargoek hartutako gutxi gorabeherako ogibidesarien baremoak EEIren 81. artikulua kontrakoak diren prezioen talde-gomendioak dira⁴³. Europako Batzordearen hainbat gutun aipatzen dira oharrean, eta gutxi gorabeherako ogibidesarien baremoak daudela salatu da bertan. Gainera, Belgikako Arkitektoen Elkargoaren gaineko 2004ko ekainaren 24ko Erabakiaren aurrekaria aipatzen du Europako Batzordeak gutunotan⁴⁴. Halaber, Europako Batzordearen aburuz, gutxi gorabeherako ogibidesarien baremoek ezin izan dezakete 2/1974 Legearen 5.ñ) artikulua eta beste edozein arau autonomikoren edo elkargoko estatuturen babesa, EEJAren *CIF* epaiaren arabera⁴⁵. Oharrak gehitu duenez, EEJAren *Cipolla* epaiaren ondotik⁴⁶, LAZk kontsulta helarazi zion DG Lehiari, Espainian hartutako gutxi gorabeherako ogibidesarien baremoen balorazio juridikoa berresteko. DG Lehiak emandako erantzunean, bereiztu egiten dira Espainiako eta Italiako araudiak, eta berretsi egiten du Espainiako lanbide-elkargoen gutxi gorabeherako tarifak ezartzeak hautsi egiten duela EEIren 81. artikulua, legeria nazionalak ezin babestu dezakeen haustea.

(65) Europako Batzordea, jakina, EEIren 81. artikulua lanbide-elkargoen gutxi gorabeherako tarifei aplikatzera mugatzen da, lehiari buruzko araudi nazionalarekin bateragarria den ala ez baloratzen hasi barik. Nolanahi ere, kontuan izan behar da ezen Europako Batzordearen Erabakiak eta EEJAren jurisprudentzia, EEIren 81. eta 82. artikuluei dagokienez, erreferentzia garrantzitsua direla LALren 1. eta 2. artikulua interpretazioan eta aplikazioan⁴⁷.

(66) Hori guztia ikusita, ondorio hau atera du Auzitegi honek: Bizkaiko HJAEOKo “Higiezinaren jabetzako agenteen lanbide-jarduketan ziozko gutxi gorabeherako ogibidesarien arauak” eta Gipuzkoako HJAEOKo “gutxi gorabeherako lanbide-ogibidesarien mugasariak” LALren 1. artikulua debekaturiko prezioen talde-

⁴¹ *Supra*, 21. oharra.

⁴² *Supra*, 24. oharra.

⁴³ *Supra*, 1. epigrafea (12).

⁴⁴ *Supra*, 26. oharra.

⁴⁵ 2003ko irailaren 9ko SEEJA, C-198/01 gaia, *Conorzio Industrie Fiammiferi* (CIF), Gom. 2003, I-8055.

⁴⁶ 2006ko abenduaren 5eko SEEJA, C-94/04, *Cipolla* eta C-2002/04, *Macrino* metaturiko gaietan

⁴⁷ 2007ko irailaren 25eko AGE (Asnef-Equifax), FJ 2: “Beraz, ez dago zalantzarik Itunaren 81. artikulua aplikatu behar dela, bai zuzenean, bai interpretazio bidez, zeren eta LALren 1 eta 3. artikuluek manu haren irizpide berei erantzuten baitiete”.



gomendioak izan daitezke.

III. LALren 4. artikulua Lanbide-elkargoen prezioen gomendioei ezin aplikatzea

(67) Bizkaiko HJAEOKo “higiezin jabetzako agenteen lanbide-jarduketan ziozko gutxi gorabeherako ogibidesarien arauak” eta Gipuzkoako HJAEOKo “gutxi gorabeherako lanbide-ogibidesarien mugasariak” LALren 1. artikulua hautsi dezaketela ondorioztatu ondoren, LALren 4. artikulua balizko aplikazioa aztertu behar da Lanbide-elkargoen Legearen 5.ñ) artikuluari dagokionez.

(68) Bizkaiko HJAEOREn eta Gipuzkoako HJAEOREn jokabideek ezin aldaraz dezakete erkidego barruko merkataritza, soilik lurralde mailako eremukoak direla-eta. Hala ere, badirudi komenigarria dela gogoraraztea ezen, ondorioztat hartzen bada Lanbide-elkargoen Legeak EEIren 81. artikulua kontra dauden eragile ekonomikoen jokabideak errazten edo indartzen dituela, Estatuak, ezinbestean, EEIren 10. eta 81. artikulua hautsi dituela⁴⁸. Halaber, ez du galaraziko Europako Batzordeak, LBNk edo nazio-azuzitegiek EEIren Itunaren 81. artikulua arestian esandako artikulua hausten duten gutxi gorabeherako ogibidesariei aplikatzea, baita bidezkoak diren zehapenak ezartzea ere⁴⁹. Antzaenez, horixe da Europako Batzordeak Lanbide-elkargoen Legearen indarreko 5.ñ) artikulua inguruan duen iritzia, aurreko 5.ñ) artikuluari buruz HJAEOK finkaturiko gutxienerako ogibidesarien Erabakian eginiko balorazioaren ildotik⁵⁰.

(69) Alabaina, Auzitegi honek uste du (1) Lanbide-elkargoen Legearen 5. ñ) artikulua ez duela ez bultzatzen ez indartzen LALren 1. artikulua haustea, eta (2) LALren 4. artikulua soilik aplika daiteke, baldin eta LALren 1. artikulua haustea beren-beregi ezarrita badago lege batean.

A. Lanbide-elkargoen Legeak ez du babesten LALren 1. artikulua haustea

(70) Lanbide-elkargoen Legearen interpretazio historiko, logiko, sistematiko eta teleologikoari esker, honako ondorio hau eman dezake Auzitegi honek: legearen 5.ñ) artikulua ez duela babesten LALren 1. artikulua kontrako den prezioen talde-gomendioaren jokabide baliokiderik⁵¹.

(71) 7/1997 Legeak sartu zuen indarrean dagoen 5.ñ) artikulua, eta horren xede nagusia lanbide liberalen lehia handia sustatzea zen, betiere LALri lotuta. Hala, Lanbide-elkargoen Legearen 2.1. artikulua aldatu zen LALren nagusitasuna ezartzeko,

⁴⁸ 1988ko irailaren 21eko SEEJA, 267/86 gaia, *van Eycke*, Gom. 1988, 4769. or, 16. atala.
⁴⁹ SEEJA *CIF*, *supra*, 45. oharra. Errepideko merkantzia garraioko gutxienerako tarifa finkatzeari buruzko txostena”, 2008ko ekainaren 17koa, LBN bere betebeharrak gogorarazi du *CIF* jurisprudentziarekin bat etorriz
<http://www.LBNompetencia.es/PDFs/OtrosInf/12.pdf>

⁵⁰ *Supra*, epigrafea (64).

⁵¹ *Supra*, epigrafea: (36) (44).



hots, lanbide-elkargoekin lotutako legeriaren garrantzi ekonomikoari (zerbitzuen eskaintza eta ordainketa) buruzko alderdi guztien gaintik LAL nagusia dela agerrarazteko. 7/1997 Legean ezarritako 2.1. artikulua azken idazketan gelditu zen agerian legegileak hartutako erabakia, hots, lanbide liberalen legeria orokorraren eta espezifikoen aurretik LAL jartzea alderdi ekonomikoari dagokienez; izan ere, 5/1996 EDLk zekarren 2.1. artikulua idazketak sor zitzaizkiekeen zalantzak argitzen zituen. 2.1. artikularekin bat etorritik, 2.4. artikulua aldatu egin zen lanbide-elkargoek emandako akordio, erabaki edo gomendio guztien aurretik LAL dagoela islatzeko, betiere elkargoek orduan indarrean zegoen LALn ezarritako baimen berezien sistema erabiltzeari kalterik egin gabe.

(72) Lanbide-elkargoak arautzen dituzten lege orokorren eta espezifikoen (a) eta lanbide-elkargoek emandako akordioen, erabakien eta gomendioen (b) aurretik LAL jartzearen gaineko printzipio orokorraren ildotik, kendu egin zen lanbide-elkargoek “gutxienezko ogibidesariak arautzeko” duten ahalmena; izan ere, jokabide hori EEIren 85. artikulua kontrakoak zela (egun, EEIren 81. artikulua) iritzi baitzion Europako Batzordearen Erabakiak, HJAEOK finkaturiko gutxienezko ogibidesarien baremoei buruzkoak⁵².

(73) Egia esan, legegileak ahalmena eman zien lanbide-elkargoari “ogibidesarien baremoak hartzeko, nolahi ere gutxi gorabeherako ogibidesariak izango direnak”, baina 16/1989 Legearen emandako nagusitasunak eta bertan ezarritako baimen bereziko prozedurei buruzko aipamenak ondorio logiko batera eramane behar gaituzte: Lanbide-elkargoen Legearen 5.ñ) artikulua (1) ez diela ahalmena ematen lanbide-elkargoari 16/1989 Legearen 1. artikulua eta LALren kontrakoak diren prezioen talde-gomendioak hartzeko; eta, (2) nahiz eta 16/1989 Legearen 1. artikulua kontrakoak diren prezioen talde-gomendioak hartzeko ahalmena eman lanbide-elkargoari, LAAREN aurrean baimen berezia nahitaez lortzeari kalterik egin gabe ulertu behar da, Lanbide-elkargoen Legearen 2.4. artikuluan ezarritako dagoenez.

(74) Lehenik eta behin, lanbide-elkargoek “gutxi gorabeherako ogibidesarien baremoak” har ditzakete nahitaez LALren 1. artikulua kontrakoak den prezioen talde-gomendiorik eman barik.

Adibidez, “baremo” terminoa ogibidesariak kalkulatzeko irizpide-multzotzat hartzen duen “gutxi gorabeherako ogibidesarien baremo” batek helburu bakarra izan dezake: profesional bakoitzari banako prezioak eta kostuak kalkulatzeko laguntzeko informazioa eta irizpideak ematea. ASETRAVI bere Ebazpenean Sustapen Ministerioak babestutako “Merkatu Behatokia”ren baitan hartutako gardentasun-neurriak bereizi zituen LAEAK, eta horien barruan hainbat informazio dakar: kamioi-moten kostuei buruzko informazio gehitua eta enpresa-elkarketak buruturiko prezioen talde-gomendioei buruzko informazioa, kostu horien eboluzioan inspiratuta⁵³. Halaber, LAAk, 2004ko maiatzaren 27ko Ebazpenean, antzeko bereizketa egin zuen kostuei edota prezioei buruzko informazio historikoaren eta horietan oinarrituriko prezioen talde-gomendioaren

⁵²

Supra, 12. oharra.

⁵³

Supra, 36. oharra



artean⁵⁴. Lanbide-elkargoen eremuan, Europako Batzordeak onartu egiten du gutxi gorabeherako tarifaren ordean gehitutako prezio historikoen estatistiken argitaratzea; estatistika horiek objektiboki eta modu independentean egin dira, profesionalak bideratzeko banako prezioak onartzerakoan⁵⁵. LBN ere agertu da gutxi gorabeherako ogibidesarien baremoaren alternatiba horren alde⁵⁶, baita Auzitegi hau ere.

(75) Nolanahi ere, 5. ñ) artikuluan ezarritako “gutxi gorabeherako ogibidesarien baremoa” “gehieneko ogibidesarien baremoa” bihurtu daiteke, printzipioz gutxieneko ogibidesarien edo ogibidesari finkeko baremoa bezain murriztailea ez dena. Gehieneko ogibidesarien baremoak tratamendu onuragarriagoa izan dezake LALren 1.1. artikularekin bat etorri baloratuz gero, edo 1.3. artikularen arabera behinik behin, baldin eta datu objektiboen arabera kalkulatu bada, kontsumitzailea babesteko eta prezio baxuagoak bila ditzaten bultzatzeko. Gainera, ez ditu prezioak lerrokaduran jarrarazten gomendaturiko gehieneko mugan. LBN ere antzeko ondorioa iritsi dela ematen du nahitaezko tarifak ezartzeari dagokionez Errepideko merkantzien garraio gutxieneko tarifak ezartzeari buruzko txostenean⁵⁷. Halaber, nahiz eta Europako Batzordearen “Lanbide-zerbitzuen lehiari buruzko txostena” gutxi gorabeherako ogibidesarien baremoak guttiz desagerraraztearen alde agertzen den, murriztaileagotzat jotzen ditu gutxieneko prezioak (finkeko) gehieneko prezioak baino⁵⁸.

(76) Bigarrenik, Lanbide-elkargoen Legearen 5.ñ) artikulua inplizituki “prezioen talde-gomendioei” buruzko dela onartuta ere, haxe xedatu da norainoko orokorra duen Lanbide-elkargoen Legearen 2.4. artikuluan: lanbide-elkargoek emandako erabaki eta gomendio guztiek, 5.ñ) artikuluan ezarritako “gutxi gorabeherako ogibidesarien baremoak” barne, bat etorri behar dute 16/1989 Legearen 1. artikularekin, betiere Lege horren 3. artikuluan ezarritako baimen berezia eskatzeari kalterik egin gabe. LAL berriak ezabatu egin du 16/1989 Legearen ezarritako baimen bereziaren prozedura. Hortaz, lanbide-elkargoek baimen berezia eska zezaketen “gutxi gorabeherako ogibidesarien baremoei” dagokienez, baina LAL berria indarrean sartu zenetik, haien “gutxi gorabeherako ogibidesarien baremoak” LALren 1. artikularekin bat etortzearen

⁵⁴ LAAren Ebazpena, 2004ko maiatzaren 27koa, 566/2003 espedientea, *Hortzetako protesikoak, Madril*, FJ 3.

⁵⁵ *Supra*, epigrafea (52).

⁵⁶ *Supra*, epigrafea (57).

⁵⁷ *Supra*, 49. oharra, 36. or.: “Aztergai dugun kasu honetan, proposaturiko prezioen gaineko esku-hartzea merkatuaren desitxuraketa da, bereziki kaltegarria gutxienekoak ezartzen baititu. Gehieneko prezioak ezartzeari buruzkoa izan ohi dira arauak. Esku-hartze hori justifikatu egin daiteke, zeren horren helburua kontsumitzaileak merkatuko botere egoeratik babestea baita, zenbait operadore monopolista izatearen ondorioz izan ohi diren egoeretatik. Hala ere, onura orokorraren arabera, askoz arrazoi handiagoarekin jar daiteke zalantzan gutxieneko tarifa ezarrita, zeren eta ez baitu merkatuaren gehiegizko boteretik urruntzen termino absolutuetan eta ondasunaren eskatzaileei kostua handiagoa baitakarkie”.

⁵⁸ *Supra*, 21. oharra, 31 eta 35. epigrafeak: “Hala ere, badira oraindik prezio finkeko eta gutxieneko eta gehieneko prezioak kasu gutxi batzuetan (Batzordeak egun dituen datuen islatzen dituen 1. koadroan bildutakoak). Prezio finkeko eta gutxieneko prezioak dira lehiari kalterik handienak eragin diezazkioketen tresna arautzaileak, eta kontsumitzaileek merkatu lehiakorretan eskuratzen dituzten etekinak kentzen edo nabarmen murrizten dituzte. (31. epigrafea) (...) Baliteke prezioek kontsumitzaileak babestea merkatuko gehiegizko kostuen aurrean; sarrerak nabarmen oztopatzen dira lehia eraginkorrik izan barik. Hala ere, dirudienez ez da hala gertatzen EBko lanbide liberalik gehienetan” (35. epigrafea)”.



inguruko autoebaluazioa egin behar dute eta, hala denean, Lege horren 1.3. artikuluan ezarritako salbuespenaren aplikazioaren inguruko autoebaluazioa ere bai.

(77) Azkenik esan behar da ezen EEIren 10. artikuluan dakarren erkidego-leialtasunaren printzipioak eskatuta eman dela Auzitegi honek Lanbide-elkargoen Legeari buruz eginiko interpretazioa; printzipio horren arabera, nazio-mailako legeak eta xedapenak aplikatzeko ardura duten organo publiko guztiek halako moldez interpretatu beharko dituzte nahitaez lege eta xedapen horiek, non erkidego-zuzenbidearekiko bateragarritasuna bermatuko baita ahal den neurrian⁵⁹. Interpretazio hori dela-eta, ez dago zertan ondorioztatu Lanbide-elkargoen Legearen 5.ñ) artikulua, berau bakarrik aintzat hartuta, arau-haustea dakarrenik, hots, Estatuak EEIren 10. eta 81. artikulua haustea. Izan ere, badirudi ondorio horrexetara iritsi dela Europako Batzordea bera ere.

B. Beste lege batzuek ezarritako arau-haustek baizik ez ditu babesten LALren 4. artikulua

(78) Auzitegi Konstituzionalak (AK) enpresa-askatasunaren eskubidean txertatu du EEren 38. artikuluan onartutako lehiaren defentsa⁶⁰. Bestalde, enpresa askatasunaren eskubide konstituzionala ez da absolutua eta beste printzipio konstituzional batzuekin bateratu behar da. EEren 53.1. artikulua dela bide, legegileari dagokio printzipio konstituzionalak bateratzea, betiere horietako bakoitzaren funtsezko edukia errespetatuz⁶¹.

(79) LALren 4. artikulua EEren 53.1. artikulua isla da lehiaren defentsaren eremuan. Hori dela-eta, enpresa-askatasuna beste printzipio konstituzional batzuekin bateratzearen inguruan Auzitegi Konstituzionalak emandako jurisprudentziak izan behar du LALren 4. artikulua interpretazioaren gidaria. Jurisprudentzia horretan ezarri denez, lehia librea murriztu dezakeen esku-hartze publikoak beharrezkoa, egokia eta proportzionala izatea eskatzen dute enpresa-askatasunak eta lehia librerako askatasunak⁶².

(80) LBNk berretsi egin du printzipio hori bere txostenean: Errepideko garraioan gutxieneko tarifa bat finkatzeari buruzko txostenean.

⁵⁹ *Vid.*, adibidez, 1984ko apirilaren 10eko SEEJA, C-14/83 gaia, *van Colson*, Errep. 1984, Espainiako edizio berezia, 515. or.; eta 1990eko azaroaren 13ko SEEJA, C-106/89 gaia, *Marleasing*,

⁶⁰ 112/2006 AKE, 2006ko apirilaren 5koa, FJ 8: “Askatasun hori babesteko beharrezko neurrien artean, lehiaren alde egiteko neurrien garrantzi berezia onartu dugu, betiere lehia “enpresaren eta merkatu-ekonomiaren defentsatzat hartuta eta ez murrizpentzat, zeren merkatu horren berezko joeren kontrolik gabeko jokoaren arriak egongo bailirateke” (88/1986 AKE, uztailearen 1koa, FJ 4)”.

⁶¹ EKren 53.1. artikulua: “Titulu honetako II. kapituluaren onartutako eskubideak eta askatasunak herri-botere guztiak hartzen dituzte. Soilik Legez arautu daiteke eskubide eta askatasun horien erabilera; nolana ere, legearen funtsezko edukia errespetatu beharko da, eta askatasun eta eskubide horiek 161.1 a). artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik babestuko dira”.

⁶² AKE 66/1991, martxoaren 22koa, FJ 2; AKE 109/2003, 2003ko ekainaren 5koa, FJ 15 eta AKE 112/2006, 2006ko apirilaren 5koa, FJ 8.



“LALren 4. artikulua arabera, legegilea da lehiaren murrizpena ezartzeko legitimotasuna duen bakarra. Legegilearen jardunak, ordea, beharrezkoa, egokia eta proportzionala izan behar du defendatu nahi den interes publikoarekiko. Espainia Europako Batasuneko estatua eta erkidego-zuzenbidea nagusia da, eta ondorio zuzena du (lehiari buruzko bere araudia du erkidego-zuzenbidea). Horren guztiaren ondorioz, are eskakizun handiagoa exijitzen zaio legegilearen balizko neurri orori.”⁶³

(81) Horregatik, LALren 4. artikuluan ezarritako lege-salbuespena “legea aplikatzearen ondoriozko jokabideei” [lehia murrizten dutenak] aplikatzeko, nahitaez ezarri (inposatu) behar da beren-beregi lege batean lehiaren murrizpena. Soilik hala jokatuta errespetatzen da lehiaren esku-hartze murriztailearen beharraren eta proportzionaltasunaren printzipioa.

(82) Ildo beretik, LAAk ezarri duenez, ezin ondoriozta daiteke Aseguruaren Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legearen 33. artikuluan araturiko asegurukidetzatik debekatuta ez daudenik lehiaren kontrako ondorioak eragin ditzaketen asegurukidetzakontratuak kontratuaren edukiaren arabera eta garraioaren arloko finantza-aseguruen zerbitzuko aseguru-etxeen merkatuaren posizioaren arabera⁶⁴. Antzeko iritzia eman du LAAk ere; izan ere, nahiz eta Kooperatibei buruzko uztailaren 16ko 27/1999 Legearen 15.2.b) artikuluan ezarri kooperatibak bere gizarte-helburua betetzeko egiten dituen jardueretan bazkideen parte hartu behar dutela nahitaez, betiere estatutuetan xedaturiko gutxieneko kopuruarekin, ez du babesten estatutuetan ezarritako betebeharra handitzea, hots, gutxienez % 35-% 50 erostea, baldin eta lehia librearen kontrako ondorioak badakartza eskuraketa horrek⁶⁵.

(83) Auzitegi Gorenak 2005eko urriaren 27an emandako epaiaren bidez baliozkotu da arlo horretan LAAren ebazpena, 16/1989 Legearen 2.1. artikuluari buruzkoa (LALren 4. artikulua aurrekoa):

“...Unibertsitatearen Erreformari buruzko Legearen 11. artikulua kontratu horiek babesten ditu, baina ez berariaz lehiaren eskubidearen ikuspegitik, hots, ez Lehiaren Aldeko Legearen 2.1. artikulua ikuspegitik. Manu hori askoz mugapetuago dago, zeren zuzenago aipatzen baititu berez Legearen beraren 1. artikuluan ezarrita egongo lirakeen akordioak, erabakiak, gomendioak eta jardunak, baina erabaki horien betearazpenean emandako arau-xedapenetan edo lege batean ezarri direnez gero, babestuta egongo lirake 1. artikulua horien aurrean. Beraz, Lehiaren Aldeko Legearen 2.1. artikulua berariaz akordioak, erabakiak, gomendioak eta jardunak baimentzen dituen lege bati buruzkoa da; izan ere, jardun horiek 1. artikulua debekuen barruan egongo lirake legearen bitartekotzarik gabe.

Beraz, instantziako epaian oker jokatuta ezarri denaren kontra, Unibertsitatearen Erreformaren Legea ez da Lehiaren Aldeko Legeari buruzko 2.1. artikuluan aipatzen diren legeetako bat, zeren eta ez baitu baimentzen berez Lehiaren Aldeko Legearen 1.

⁶³ *Supra*, 49. oharra, 14. or.

⁶⁴ LAAren Ebazpena, 1995eko urtarrilaren 16koa, r98/94 espedientea, *Garraio enpresentzako aseguruak*.

⁶⁵ LAAren ebazpena, 2001eko martxoaren 26koa, A 277/00 espedientea, *Gutxieneko erosketa COFAS, SANek berretsia 2003ko abenduaren 10ean*.



artikuluaren debekuetako baten barruan sartzen den jokabide bat, baizik eta haren norainokoa kontratu horiek oro har baimentzea da, adibidez irakasleek haien lanaldi akademikoarekin burutzen duten jardueraren bateragarritasunaren ondorioetarako. Lehiaren eskubidearen ikuspegitik, halako kontratuak zuzenbidearen kontrakoak izan daitezke edo ez, ezaugarrien, horiek egiten diren merkatuaren, merkatuan duten garrantziaren eta aintzat hartu beharreko gainerako inguruabarren arabera. Hori guztia berariaz frogatu egin beharko da kasu bakoitzean”⁶⁶.

(84) Laburbilduz, legean beren-beregi ezarritako lehiaren murrizpenei aplika dakieke LALren 4. artikulua. *Sensu contrario*, LALren 4. artikulua ezin aplika daiteke ondoko bi kasu haueetan:

- 1 Legean lehiaren murrizpena beren-beregi ezartzen (inposatzen) denean baina murrizpen hori hartzea agenteen esku gelditzen denean; edo
- 2 Legeak nahitaez lehiaren kontrakoa den jokabide bat inposatzen edo horretarako ahalmena ematen duenean (*ab initio* murrizpena), baina hala izan daiteke agente ekonomikoak burutzen edo garatzen duenaren arabera (bat-bateko murrizpena).

(85) LALren 4. artikulua interpretazio murriztaile hori guztiz bat dator lehiaren arloan eragile ekonomikoari erantzukizuna esleitzeari buruzko EEJaren jurisprudentziarekin:

“Estatuak ezarritako salbuespen hori ez da soilik aplikatzen Estatuak jokabide jakin bat inposatzen duenean [*Orri-oineko oharra: C-359/95 P eta C-379/95 P, Ladbroke, Rec. [1997] I-6265, 33 eta 34. atala*]. Hortaz, baldin eta nazioko zuzenbideak ahalbidetzen, sustatzen edo errazten badu enpresek lehiaren kontrako jokabide autonomoan, ezin aplika daiteke Estatuak ezarritako beharraren salbuespena [*Orri-oineko oharra: T-191/98 T-212/98 – T-214/98 gai metatuak, Atlantic Container Line/Comisión Rec. [2003]*].”⁶⁷

(86) Lanbide-elkargoen Legearen 5.ñ) artikuluari lotuta, hauxe ondorioztatu behar da: ez dela beren-beregi ezartzen lehiaren kontrako jokabiderik; jokabide bat hartzeko ahalmena ematen du (“gutxi gorabeherako ogibidesarien baremoa”), lehiaren kontrako erabakia ekar dezakeena (“prezioen talde-gomendioa”) lanbide-elkargoek horiek burutzearen edo garatzearen arabera⁶⁸. Hori dela-eta, auzitegiak uste du LALren 4. artikulua ezin aplika dakiekeela LALren 1. artikulua kontrako prezioen talde-gomendioak diren “gutxi gorabeherako ogibidesari baremoei”.

IV. Gipuzkoako HJAEOren ikus-onetsien prezioa LALren 2. artikulua batekin bateragarri ez izatea

⁶⁶ 2005ko urriaren 27ko AGE, FJ 5, 2002ko urriaren 22ko SAN berresten duena LAren Ebazpenari dagokionez, r281/97, Valentziako Unibertsitate Politeknikoa,

⁶⁷ “Lanbide-zerbitzuetako lehiari buruzko txostena”, *supra*, 21. oharra, 77. epigrafea.

⁶⁸ *Vid., supra*, epigrafeak (74)- (75).



(87) Gipuzkoako HJAEOk “gutxi gorabeherako ogibidesari profesionalen mugasarien” 16. arauak behartu egiten ditu haien lanei ikus-onetsia egin behar duten profesionalak “minutak elkargoaren bitartez luzatzeko, eta agenteari zuzenean agindutako lanen minuten % 10 atxikiko dute, eta elkargoaren bitartez agindutako lanen kasuan, minutaren % 20ko atxikipena izango da.

(88) Ondorio ekonomikoak dituen jarduera baten gaineko eskubide eskusiboa eskuratzeko ahalmena ematen die lanbide-elkargoari Lanbide-elkargoaren Legearen 5.q) artikulua. Eskubide eskusibo hori erabiltzearekin lotutako gaiak aztertu baino lehen, ondokoa adierazi behar da: ondorio ekonomikoak dituen jarduera baten gaineko eskubide eskusiboa eskuratzeko ahalmenaren agente ekonomikoak ez dirudi errespetatzen dituenik Auzitegi Konstituzionalak askatasun ekonomikoaren printzipio konstituzionalaren murrizpenak onartzeko eskatzen dituen behar, egokitasun eta proportzionaltasun printzipioak, betiere eskubide horren norainokoaren eta erabiltzeko moduaren gaineko inolako arau-kontrolik izan barik. Halaber, EEIren 82. eta 10. artikulua haustea izan daiteke EEJAren jurisprudentzia ugariaren ildotik⁶⁹.

(89) Nolanahi ere, Lanbide-elkargoaren Legearen 5.q) artikulua dela bide eskubide eskusibo hori eskuratu duten lanbide-elkargoek nagusitasun posizioa dute ikus-onetsiaren zerbitzuko harrapaketa-merkatuan, eta EEIren 82. artikuluekin edota LALren 2. artikuluekin bat etorri jardun behar dute⁷⁰.

(90) Zehazkiago, elkargoaren ikus-onetsiaren kostuak ez dirudi justifika dezakeenik, alde ekonomikotik, lanbide-minutaren % 10eko tarifa ezartzea, edo are gehiago, %20koa. Hori dela-eta, Gipuzkoako HJAEOk 16. araua gehiegizko nagusitasuna izan daiteke, LALren 2. artikuluan debekatuta dagoena. Ezkutuko gehiegizko jokabidea da hori, zeren eta espero izatekoa baita elkargoko kideek bezeroei ematea ikus-onetsiaren tarifak; hala, handitu egiten dira lanbide-zerbitzuen prezioak.

(91) Azkenik, profesionalak elkargoaren bitartez minutak eman behar izatea LALren 2. artikulua debekaturiko gehiegizko posizioa izan daiteke⁷¹.

V. Ondorioak

(92) Bizkaiko HJAEOn “Higiezinen jabetzako agenteen lanbide-jarduketengatiko gutxi gorabeherako ogibidesarien arauak” eta Gipuzkoako HJAEOn “gutxi

⁶⁹ Vid., adibidez, SEEJAren 1991ko abenduaren 10ekoa, C-179/90 gaia, *Merci convenzionali porto di Genova SpA v Siderurgica, Gabrielli SpA*, Gom. 1991, I-5889. Halaber, eskubide eskusiboa aukerakoa izateak eta helburuak eta betekizunak zehaztu gabe egoteak badirudi baztertu egiten dutela elkargoaren ikus-onespena EEIren 86. artikulua araberako interes ekonomikoko zerbitzu orokor gisa.

⁷⁰ Ebazpena: *Placonsa, supra*, 9. oharra, FJ 3.

⁷¹ Ebazpena: *Placonsa, supra*, 9. oharra, FJ 4: “Komeni da zehaztea kasu honetan ez dela beharrezkoa ez dagoen ogibidesaririk kobratzeaz gain gehiegizko erabilerak ere Elkargoaren bidezko kobrantza egin beharra ekar lezakeen aztertzea. Aipaturiko epaietan jarraituko doktrina kontuan izanda [AGE, 4. atala, 1992ko ekainaren 30ekoa, eta AGE, 1. sala, 1989ko apirilaren 20koa], planteatu daiteke, “Estatutu Orokorraren” 5. artikulua dakarrena gorabehera.



gorabeherako lanbide-ogibidesarien mugasariak” LALren 1. artikulua urra dezaketen talde-prezioen gomendioak dakartzate.

(93) Halaber, jokabide horiek ez dute Lanbide-elkargoen Legearen babesa, eta ezin balia dezakete LALren 4. artikuluan ezarritako lege-salbuespena.

(94) Bestalde, Gipuzkoako HJAEOn “gutxi gorabeherako lanbide-ogibidesarien mugasarien” 16. arauak ikus-onetsia emateko prezioak ezartzen ditu eskaintako zerbitzuaren kostuari dagokionez, eta minutak lanbide-elkargoaren bitartez luzatzera behartzen dituzte; izan ere, LALren 2. artikuluan debekaturiko merkatuko nagusitasuna gehiegi erabiltzeko jokabideak izan daitezke horiek.

(95) Hortaz, Auzitegi honek atzera bota behar du orain arte eginiko jarduketak artxibatzeko proposamena, LAEZk eginikoa.

(96) Bestalde, artxibatzeko eginiko proposamenean, hauxe adierazi du LAEZk: “Ohikoa da lanbide-elkargoek gutxi gorabeherako ogibidesarien baremoak presioen talde-gomendio gisa erabiltzea. Halaber, ezin bazter daiteke LALk debekaturiko beste jokabide batzuk oro har egiten ez direnik, hala nola ikus-onetsiak emateko gehiegizko prezioak eta baldintzak ezartzea. Jarduera hauek, hein batean, beren legezko tasunari buruz dauden zalantzen ondorioak izan daitezke. Dena dela, Ebazpen honek nahikoa izan beharko litzateke zalantza juridiko hauei amaiera emateko.

(97) Hori dela-eta, auzitegi honek hobea dela deritzo LAEZk Bizkaiko HJAEOn eta Gipuzkoako HJAEOn inguruan eginiko jarduketak jarduera orokor batean txertatzea, zertarako-eta lanbide-elkargoen eremutik kanpora uzteko behin betiko LALren 1. eta 2. artikuluen kontrako jokabideak. Euskal Autonomia Erkidegoan jardunean diren lanbide-elkargo guztientzat da jarduketa hori, eta berekin dakar zentzuzko epea ematea horietako guztiei, Bizkaiko HJAEO eta Gipuzkoako HJAEO barne, haien estatutuak, akordioak, erabakiak eta gomendioak LALren xedapenetara egokitzeko. Epe hori igarota, LAEZk instrukzioa egingo du eta Auzitegiak zigor-espeditentea ebatziko du LALren arau-hausteak egiteari utzi ez dioten lanbide-elkargoen kontra.

(98) Laburbilduz, ondoko jarduketa hauek egiteko eskatzen dio Auzitegi honek LAEZri:

- 1 LAEZk Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-elkargoei jakinaraziko die Ebazpen hau, eta sei hilabeteko epea emango die haien borondatez honako hauek indargabetu ditzaten: (a) prezioen talde-gomendioei dagozkien ogibidesarien orientazio-baremoak; (b) gehiegizko ikus-onespenerako prezioak eta baldintzak; eta (c) LAL-ko 1. edo 2. artikuluek debekaturiko beste edozein jokabide.
- 2 LAEZk laguntza eskainiko die hala eskatzen duten lanbide-elkargoei, LAL eta horren estatutuak eta gainerako barne-araudia egokitzeko.
- 3 Sei hilabeteko epea igarota, LAEZk zigor-espeditentea hasiko du baliorik gabe



utzitako LALko 1 edo 2. artikuluek debekaturiko lanbide-elkargoen jokabideei dagokienez.

- 4 LAEZk Ebazpen hau jakinaraziko dio Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari, eta LALko 1 edo 2. artikuluek debekaturiko jokabideak dakartzaten elkargoko estatutuen proiektu guztiak erregistra ez ditzan eskatuko du.
- 5 LAEZk laguntza eskainiko dio Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari zerbitzu horrek egokitzen jotzen dituen elkargoko estatutuen proiektuak aztertzeke LALrekin adostasunean.



Hori guztia dela-eta, aipaturiko manuak eta oro har aplikatu beharreko gainerako manuak ikusita, hona hemen Lehiaren Aldeko Euskal Auzitegiaren ebazpena.

EBAZTEN DU

LEHENA.- Lehiaren Aldeko Euskal Zerbitzuak (LAEZ) eginiko proposamena ezatea, hots, zigor-espedita ez hasteko proposamena Bizkaiko HJAEOKo gutxi gorabeherako ogibidesarien eta Gipuzkoako HJAEOKo gutxi gorabeherako ogibidesarien mugasarien arauetara dagokienez. Alabaina, zigor-espedita egitean, bigarren ataleko lehen lerroaldean ezarritakoa bete behar da.

BIGARRENA.- Ondoko jarduketa hauek egiteko eskatzea LAEZri:

1. LAEZk Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-elkargoei jakinaraziko die Ebazpen hau, eta sei hilabeteko epea emango die haien borondatez honako hauek indargabetu ditzaten: (a) prezioen talde-gomendioei dagozkien ogibidesarien gutxi gorabeherako baremoak; (b) gehiegizko ikus-onespenerako prezioak eta baldintzak; eta (c) LALko 1. edo 2. artikuluek debekaturiko beste edozein jokabide.
2. LAEZk laguntza eskainiko die hala eskatzen duten lanbide-elkargoei, LAL eta horren estatutuak eta gainerako barne araudia egokitzeko.
3. Sei hilabeteko epea igarota, LAEZk zigor-espedita hasiko du baliorik gabe utzitako LALko 1 edo 2. artikuluek debekaturiko lanbide-elkargoen jokabideei dagokienez.
4. LAEZk Ebazpen hau jakinaraziko dio Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailari, eta LALko 1 edo 2. artikuluek debekaturiko jokabideak dakartzaten elkargoko estatutuen proiektu guztiak erregistra ez ditzan eskatuko du.
5. LAEZk laguntza eskainiko dio Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailari zerbitzu horrek egokitzen dituen elkargoko estatutuen proiektuak aztertzeko LALrekin adostasunean.

Ebazpen hau jakinaraz bekio Lehiaren Aldeko Euskal Zerbitzuari.